

Bizkaiko Foru Aldundiaren erabakia zertarako eta Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Labayru Fundazioaren artean sinatuko den esparru-hitzarmena onesteko. Hitzarmenaren xedea da hiru erakundeen arteko lankidetzarako oinarriak eta konpromisoak ezartzea 2021-2024 aldirako.

Bizkaiko Foru Aldundiak 2021/03/23(e)an onetsitakoa (gai-zerrendatik 7. gaia). Foru erabakiaren proposamena (EKE: 8GVV9HJURMKVLNJW).

Erabaki proposamena, zertarako eta Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Labayru Fundazioaren artean sinatuko den esparru-hitzarmena onesteko. Hitzarmenaren xedea da hiru erakundeen arteko lankidetzarako oinarriak eta konpromisoak ezartzea 2021-2024 aldirako.

Acuerdo para la aprobación del Convenio Marco a suscribir entre el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y la Fundación Labayru para establecer las bases y compromisos de colaboración entre las tres instituciones en el periodo 2021-2024.

Aprobado por la Diputación Foral de Bizkaia el 23/03/2021, asunto 7 del orden del día, Propuesta de Acuerdo foral con CVE 8GVV9HJURMKVLNJW.

Propuesta de acuerdo para la aprobación del Convenio Marco a suscribir entre el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y la Fundación Labayru para establecer las bases y compromisos de colaboración entre las tres instituciones en el periodo 2021-2024.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ERABAKI-PROPOSAMENA; ERABAKI HONEN BIDEZ, ESPARRU-HITZARMEN HAU ONESTEN DA: EUSKO JAURLARITZAREN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA LABAYRU FUNDAZIOAREN ARTEKO ESPARRU-HITZARMENA, 2021-2024 EPEALDIAN HIRU ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANAREN OINARRIAK EZARTZEKO.

PROPUESTA DE ACUERDO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA POR EL QUE SE APRUEBA EL CONVENIO MARCO ENTRE EL GOBIERNO VASCO, LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA FUNDACIÓN LABAYRU PARA ESTABLECER LAS BASES Y COMPROMISOS DE COLABORACIÓN ENTRE LAS TRES INSTITUCIONES EN EL PERIODO 2021-2024.

Andre agurgarria:

Ilma. Sra.:

Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren bitartez, hainbat ekintza eta programa antolatu eta sustatzen ditu euskara sustatzeko; horri begira, hainbat xedapenetan, eta, batez ere, Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) ezarritako gidalerroei jarraitzen die; izan ere, plan hori Eusko Jaurlaritzak onetsi zuen 2012an eta 2013an, eta Eusko Legebiltzarrak 2013an.

Bere aldetik, Labayru Fundazioak izaera juridiko propioa du, eta sortu zenetik euskal kultura haren jardueraren interesgunean du. Bere estatutuetan lehentasunezko helburutzat jasotzen du euskal kulturaren balioak garatzeko eta eguneratzeko lan eta zerbitzuak sustatzea.

Herri-erakunde sinatzaileek Labayru Fundazioaren jarduera suspertu eta bermatzeko hainbat neurri hartu dituzte azken urteotan, hasieran banan-banan, eta, harrezkero, arian-arian, modu bateratuan.

Orain, aurrera egin behar da etengabeko ikerkuntza-jarduerari eutsiz, Labayru Fundazioak

La Diputación Foral de Bizkaia, a través del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, organiza y promueve diversas acciones y programas de promoción del euskera siguiendo las directrices establecidas en diversas disposiciones y, principalmente, en el Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP), aprobado por el Gobierno Vasco en 2012 y 2013 y por el Parlamento Vasco en 2013.

Por su parte, la Fundación Labayru es una institución con personalidad jurídica propia y dedicada a la cultura vasca desde su constitución, y contempla en sus estatutos fundacionales, como finalidad primordial de la misma, la promoción de obras y servicios a favor del desarrollo y actualización de los valores de la cultura vasca.

En los últimos años, las diferentes administraciones públicas suscribientes han adoptado, primero individualmente, y, progresivamente, de forma conjunta, distintas medidas orientadas a fomentar y garantizar la actividad de la Fundación Labayru.

Ahora es necesario avanzar manteniendo una actividad investigadora continuada, para que



lan horrek ematen dituen fruituak ezagutzera ematen jarrai dezan, batez ere egiten dituen programen bidez.

Horrela, herri-erakunde sinatzaileek eta Labayru Fundazioak euren elkarlanerako oinarriak ezarri dituzte esparru-hitzarmen honetan, Labayru Fundazioaren kudeaketaren eta jardueraren gainean aholkua emateko eta horien segimendua eta ebaluazioa egiteko tresna gisa hartuta.

Horrenbestez, hitzarmen hau planifikazio estrategiko eta kudeaketarako tresna izango da, eta horren bidez herri-erakunde sinatzaileek eta Labayru Fundazioak euren arteko harreman-esparrua zehazten dute, bakoitzaren konpromisoak dagokienez, bai eta Fundazioaren finantzaketa-sistemari eta 2021-2024 aldirako (biak barne) ezarritako helburuen betetze-maila ebaluatzeko sistemari dagokienez ere.

Zehazki, hau da honako hitzarmenaren xedea:

- Labayru Fundazioaren, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren oinarriak finkatzea eta, era berean, erakundearen aurreranzko ekintzabidea ziurtatzeko alderdiek beren gain hartzen dituzten betebeharrak, diruzkoak zein baliabidezkoak, arautzea..
- Lexikografia eta Bizkaiko euskararen Corpusa bultzatuko duten programak finantzatzea. Gainera, corpusarekin zerikusia duten bestelako proiektuak ere urtez urteko egitasmoan sartu ahal izango dira, Jarraipen Batzordeko kideek hala adostuz gero.

Abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileak onetsi zuen Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau

Labayru continúe dando a conocer los frutos de esa actividad, principalmente a través de los programas que realiza.

De este modo, las Administraciones Públicas suscribientes y la Fundación Labayru establecen en este convenio las bases para su colaboración, como un instrumento para orientar, realizar el seguimiento y evaluar la gestión y las actividades de la Fundación Labayru.

Por tanto, este convenio se configura como un instrumento de planificación estratégica y de gestión, mediante el cual las Administraciones Públicas suscribientes y la Fundación Labayru concretan su marco de relaciones en cuanto a sus compromisos respectivos, su sistema de financiación y el sistema de evaluación del cumplimiento de los objetivos establecidos para el período 2021-2024, ambos inclusive.

En concreto, el objeto del presente convenio consiste en:

- Establecer las bases generales de colaboración entre la Fundación Labayru, por una parte, y el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia, por otra, así como regular el marco de compromisos tanto financieros como materiales que cada parte asume, con el fin de garantizar la actividad futura de la institución.
- Financiar programas del ámbito de la lexicografía, y aquellos cuyo objeto sea impulsar el Corpus del euskera vizcaíno. Además, se podrán incluir en el plan anual otros proyectos relacionados con el corpus, siempre que así lo acuerden los miembros de la Comisión de Seguimiento.

Tal y como señala la Disposición Adicional Quinta Dos del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto



Orokorren testu bategina; bada, foru dekretu arauemaile horren bosgarren xedapen gehigarriko bigarren puntuak adierazten duenez, Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-erakunde autonomiadunek, lankidetzaz-hitzarmenak egin ahal izango dituzte zuzenbide pribatuari loturiko pertsona fisiko eta juridikoekin, baldin eta hitzarmenaren helburua ez badago jasota herri administrazioen kontratuak arautzen dituen legerian edo administrazio-arau berezietan.

Horrenbestez, hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak onesten duen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, haren edukia kontuan hartuta. Izan ere, lege horretako 6.2 artikuluan adierazten denez, lege horren eremutik kanpo geratzen dira, halaber, sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren peko pertsona fisiko edo juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, haien edukia ez badago lege honetan nahiz administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukien artean.

Horregatik guztiagatik, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17., 39. eta 66. artikulua ikusirik, eta Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onetsi zuen abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuaren arabera berezko zaizkion eginkizunak aintzat hartuta, eta erabiliz Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorren testu bategina onartzen duen 2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileko bosgarren xedapen gehigarriak eta harekin bat datozenek emandako ahalmenak, behean sinatzen duen teknikariak erabaki-proposamen hau aurkezten dizu, bidezkoztat jotzen baduzu, Bizkaiko Foru Aldundiak aztertu dezan eta, hala badagokio, onetsi dezan.

refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, la Diputación Foral de Bizkaia y sus Organismos Autónomos Forales podrán celebrar convenios de colaboración con personas físicas o jurídicas, sujetas al derecho privado, siempre que su objeto no esté entre los comprendidos en la legislación reguladora de los contratos de las Administraciones Públicas, o en normas administrativas especiales.

En este sentido, este Convenio se encuentra excluido como tal, y en función de su contenido, del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, dado que, tal y como señala su artículo 6.2 «Estarán también excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales».

Por todo ello, y vistos los artículos 17, 39 y 66 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y de las funciones que le son propias a tenor del Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, y en uso de las facultades conferidas en virtud de la Disposición Adicional Quinta y concordantes del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, el Técnico que suscribe eleva a V.I., en el sentido de que si lo estima pertinente someta a la consideración de la Diputación Foral de Bizkaia, para su estudio y aprobación, si procede, la siguiente propuesta de



ERABAKIA:

ACUERDO

Lehenengoa.- Esparru-hitzarmena onartzea EUSKO JAURLARITZAren (IFZ S4833001C) eta LABAYRU FUNDAZIOaren (IFZ R4800525J); hitzarmen hori eranskinean agerida, eta beraren helburua, berriz, hauexa da: 2021-2024 epealdian hiru erakundeen arteko elkarlanaren oinarriak ezartzea.

Bigarrena.- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari berariaz baimena ematea, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta hura ordezkatzuz, esparru-hitzarmena formalizatzeko agiriak sinatuz.

Hirugarrena.- Hitzarmen honen jarraipen-batzorderako:

A) Honako hau izendatzen da Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia.

B) Onartu egiten da Eusko Jaurlaritzaren ordezkari modura honako hauek izendatzeko egin duen proposamena:

- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzordeburuari dagokion egitekoa beteko duena.

Primero.- Aprobar el convenio marco con el GOBIERNO VASCO (NIF S-4833001-C) y la FUNDACIÓN LABAYRU (NIF R4800525J), convenio que aparece en el Anexo y tiene como objeto establecer las bases de colaboración entre las tres instituciones en el periodo 2021-2024.

Segundo.- Autorizar expresamente a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para que en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia firme los documentos de formalización del convenio marco.

Tercero.- A los efectos de la Comisión de Seguimiento del convenio:

A) Se designan como representante de la Diputación Foral de Bizkaia a:

- Director General de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia.

B) Se acepta la propuesta del Gobierno Vasco de designar como sus representantes a:

- El/La viceconsejero/a de Política Lingüística del Gobierno Vasco, que desempeñará las funciones de presidente de la Comisión.



- Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria, batzordeko idazkariari dagokion egitekoa beteko duena.

- El/La Director/a de Promoción del Euskera del Gobierno Vasco, que desempeñará además las funciones de secretaria de la Comisión.

C) Onartu egiten da Labayru Fundazioaren ordezkari modura honako hauek izendatzeko egin duen proposamena:

C) Se acepta la propuesta de la Fundación Labayru de designar como su representante a:

- Labayru Fundazioaren zuzendaria edo berak izendaturiko ordezkaria.

- El/La Director/a de la Fundación Labayru, o un representante nombrado por él/ella mismo/a.

Batzordeko bileretara Labayru Fundazioaren beste hiru ordezkari joan ahal izango dira, gehienez. Berauek hitza izango dute, baina ez botorik.

Podrán asistir a las reuniones de la Comisión, y participar con voz pero sin voto, hasta tres representantes más de la Fundación Labayru.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailari, Labayru Fundazioari eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbitzuari.

Cuarto.- Notificar este acuerdo al Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, a la Fundación Labayru y al Servicio de Euskera del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

Bosgarrena.- Hitzarmen hau Bizkaiko Batzar Nagusiei aurkeztu behar zaie, haiek berrets dezaten, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak 7. artikuluko 2.b).3 apartatuan xedatutakoaren arabera.

Quinto.- Someter a ratificación de las Juntas Generales de Bizkaia la aprobación del presente Convenio conforme a lo establecido en el artículo 7.2.b)3º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

EUSKO JAURLARITZAREN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA LABAYRU FUNDAZIOAREN ARTEKO ESPARRU-HITZARMENA, HIRU ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANAREN OINARRIAK ETA KONPROMISOAK EZARTZEKO, 2021-2024 EPEALDIA

CONVENIO MARCO ENTRE EL GOBIERNO VASCO, LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA FUNDACIÓN LABAYRU PARA ESTABLECER LAS BASES Y COMPROMISOS DE COLABORACIÓN ENTRE LAS TRES INSTITUCIONES, PERIODO 2021-2024

Batetik, Miren Dobaran Urrutia andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko (hemendik aurrera, Eusko Jaurlaritzaren) Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari eta haren izenean, 82/2017 Dekretuak, apirilaren 11koak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak ezarritako eskumenaren arabera.

Por una parte, Dña. Miren Dobaran Urrutia, viceconsejera de Política Lingüística de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco (en adelante, Gobierno Vasco), en nombre y representación del Gobierno Vasco, en virtud de las competencias definidas en el Decreto 82/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

Bestetik, Lorea Bilbao Ibarra andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak zein Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak ezarritako eskumenen arabera.

Por otra parte, Dña. Lorea Bilbao Ibarra, diputada de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, en virtud de las competencias definidas en la Norma Foral número 3/1987, de 13 de febrero sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y en el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia.

Beste alde batetik, Igone Etxebarria Zamalloa andrea, Labayru Fundazioaren zuzendaria.

De otra parte, Dña. Igone Etxebarria Zamalloa, directora de la Fundación Labayru.

Hiru parte-hartzaileek, nork bere erakundearen ordezkari gisa, honako hitzarmen hau sinatzeko behar den adinako

Los tres intervinientes, en calidad de representantes de sus respectivas instituciones, se reconocen mutuamente

gaitasuna aitortzen diote elkarri.

capacidad suficiente para otorgar el presente convenio.

ADIERAZI DUTE:

Lehenengoa.- Labayru Fundazioak, izaera juridiko propioa duenak eta sortu zenetik euskal kultura haren jardueraren interesgunean duenak, bere estatutuetan lehenetsuneko helburutzat jasotzen du euskal kulturaren balioak garatzeko eta eguneratzeko lan eta zerbitzuak sustatzea.

Bigarrena.- Fundazio honek euskararen esparruan garatzen dituen jardueren interes orokorra aintzat hartuz, herri-erakunde parte-hartzaileek aipatutako Fundazioarekin arlo finantzario eta materialean lankidetzan aritzeko bide formala antolatzeak aukera onetsi dute, horrela, arlo horretan haren etorkizuneko jarduketaren garapen osatuago eta eraginkorragoa ahalbidetzeko.

Hori guztia dela medio, alderdiek hitzarmen hau egitea adostu dute, honako hauei jarraiki:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea, batetik, Labayru Fundazioaren, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren oinarriak finkatzea da eta, era berean, erakundearen aurreranzko

EXPONEN:

Primero.- Que la Fundación Labayru institución con personalidad jurídica propia y dedicada a la cultura vasca desde su constitución, contempla en sus estatutos fundacionales, como finalidad primordial de la misma, la promoción de obras y servicios a favor del desarrollo y actualización de los valores de la cultura vasca.

Segundo.- Que las Administraciones intervinientes reconociendo el interés general de las actividades que en el ámbito del euskera viene desarrollando la referida fundación conviene en considerar la oportunidad de instrumentar un cauce formal de colaboración financiera y material con dicha Fundación a fin de posibilitar un mayor y más eficaz desarrollo de su actuación futura en dicho ámbito.

Por todo lo anterior, las partes acuerdan firmar el presente convenio de acuerdo con las siguientes

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto del convenio

El presente convenio tiene por objeto establecer las bases generales de colaboración entre la Fundación Labayru, por una parte, y el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia, por otra, así como regular el

ekintzabidea ziurtatzeko alderdiek beren gain hartzen dituzten betebeharrak arautzea.

Hala, hitzarmen honen pean lexikografia eta Bizkaiko euskararen Corpusa bultzatuko duten programak finantzatuko dira. Gainera, corpusarekin zerikusia duten bestelako proiektuak ere urtez urteko egitasmoan sartu ahal izango dira, seigarren klausulan adierazitako Jarraipen Batzordeko kideek hala adostuz gero.

Bigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen hau lau urtez izango da indarrean, baldin eta helburu horretarako aurrekontu-kreditu nahikoa eta egokia badago izendatuta hitzarmen-kideen aurrekontu orokorretan, ekitaldi bakoitzean. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan.

Hirugarrena.- Labayru Fundazioak bere gain hartzen dituen betebeharrak

Honako baldintza hauek betetzeko konpromisoa hartzen du, luze-zabalean, Labayru Fundazioak:

3.1. Aurrekontu arlokoak

Hitzarmen honetan sortzen den Jarraipen Batzordeari honako hauek aurkeztu beharko dizkio:

a) Aurrekontu arrunta (ezein programari berariaz ez egotzitako gastuak):

marco de compromisos que cada parte asume, con el fin de garantizar la actividad futura de la institución.

Así, el presente convenio financiará programas del ámbito de la lexicografía, y aquellos cuyo objeto sea impulsar el Corpus del euskera vizcaíno. Además, se podrán incluir en el plan anual otros proyectos relacionados con el corpus, siempre que así lo acuerden los miembros de la Comisión de Seguimiento a que se refiere la cláusula sexta.

Segunda.- Vigencia del convenio

La vigencia del presente convenio se prevé para un periodo de cuatro años, siempre y cuando exista crédito presupuestario suficiente y adecuado nominativamente asignado para el objeto del mismo en los respectivos presupuestos generales de las entidades suscribientes para los ejercicios correspondientes. En el caso del Gobierno Vasco en los presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi (CAE).

Tercera.- Compromisos que asume la Fundación Labayru

La Fundación Labayru se compromete con carácter general al cumplimiento de las siguientes condiciones:

3.1. De carácter presupuestario

Deberá remitir a la Comisión de Seguimiento que se crea en el presente Convenio:

a) Presupuesto ordinario (gastos no atribuidos de modo específico a ningún

- Langile-taldearen osaera eta kostua.
- Funtzionamendu-gastuak.
- Inbertsioak.

b) Programa-aurrekontuak (jadanik abian dauden edo abian jarriko diren lan-programen gastuak).

3.2. Jardute-arlokoak zein materialak

Era berean, hurrengo ekitaldian burutuko dituen programen jarduketa-plan bat ere aurkeztu beharko du. Urte anitzeko jarduketa-planen kasuan, aurrekontu horrek urteetan banakatua egon beharko du.

1997ko azaroaren 11ko Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluan jasotako laguntza eta dirulaguntzen araubidearen eraginpean egongo da Labayru Fundazioa, xedapen horren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharren menpe, baita 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan ezarritakoen pean ere; horrek arautzen du Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra. Halaber, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako informazio guztia eman beharko du Labayru Fundazioak.

3.3. Bestelako betebeharrak

Jarduketa-planean begiz jotako egitekoek

programa):

- Composición y costo de la plantilla.
- Gastos de funcionamiento.
- Inversiones reales.

b) Presupuesto por programas (gastos derivados de programas que ya se han puesto en marcha o que se vayan a iniciar).

3.2. De carácter material y de actuación

Igualmente, deberá remitir un plan de actuación de los programas que vaya a realizar en el ejercicio siguiente. En el caso de programas plurianuales, el presupuesto por programas presentado deberá estar desglosado por anualidades.

La Fundación Labayru queda sujeta al régimen de ayudas y subvenciones previstas en el Título VI del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, a las obligaciones establecidas en el artículo 50.2 de dicha disposición, a las previstas en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en particular a facilitar cuanta información le sea requerida por el Gobierno Vasco, por la Diputación Foral de Bizkaia y por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

3.3. Otros compromisos

La Fundación Labayru informará a la

etenik izanez gero, horren guztiaren berri emango dio Labayru Fundazioak Jarraipen Batzordeari; halaber, bere programa nahiz ikerketa-proiektuen txosten edo memoriak interpretatzeko xehetasunak emango dizkio batzordeari, horrek eskatuz gero.

Labayru Fundazioa elkarlanean arituko da unibertsitateekin eta beste erakunde akademiko batzuekin hizkuntzalaritzaren alorreko ikertzaileak trebatzeko, horretarako sinatzen diren akordioen eta hitzarmenen bidez.

Horrez gain, hitzarmen honen babesean egindako jardueretan, Labayru Fundazioak herri-erakunde sinatzaileen lankidetzara adieraziko du argi, egitasmoaren baitan kaleratutako euskarri guztietan. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipo normalizatuak agerrarazi behar ditu.

Laugarrena.- Hitzarmena izenpetzen duten herri-aginteen betebeharrak

Hitzarmen honen indarraldian, urteko aurrekontuak jasotzen dituzten lege-egitasmoetan edo foru-arauetan, Labayru Fundazioarentzako diru-izendapena jasotzea ahalbidetuko duten neurriak onartzeko ardura hartzen dute beren gain, Labayru Fundazioak hitzarmen honetan jasotakoa bete ahal izan dezan. Hori horrela izango da, betiere, hitzarmen honen 2. klausulan jasotakoa betetzen bada.

Comisión de Seguimiento de cuantas incidencias supongan la interrupción del normal desarrollo de las actividades previstas en el plan de actuación y prestará cuanta asistencia se precise para la interpretación de los informes y memoria de los programas y proyectos de investigación.

La Fundación Labayru colaborará con las universidades y otras instituciones académicas en la formación de investigadores en materia lingüística a través de los acuerdos y convenios correspondientes.

Además, en las actividades realizadas al amparo del presente convenio, la Fundación Labayru expresará con claridad la colaboración de las entidades públicas firmantes en todos los soportes publicados en este proyecto. Por ello, debe hacer constar los logotipos normalizados del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral de Bizkaia.

Cuarta.- Compromisos de los poderes públicos

Durante la vigencia del presente convenio se comprometen a velar por la efectiva asunción de las medidas necesarias que hagan posible la consignación en los correspondientes Proyecto de Ley y Proyecto de Norma Foral de los Presupuestos, de la dotación necesaria a los efectos de conceder a la Fundación Labayru las ayudas que posibiliten la instrumentación de lo previsto en el presente convenio. Esto será así siempre y cuando se cumpla lo recogido en la cláusula 2.^a de este convenio.

Bosgarrena.- Prozedura

5.1. Ekitaldi bakoitzean, eta Jarraipen Batzordeak jarritako epearen barruan, Labayru Fundazioak hurrengo ekitaldian burutuko dituen programen jarduketa-plana eta behin-behineko aurrekontuak (arrunta eta programenak) aurkeztu beharko dizkio batzorde horri.

5.2. Jarraipen Batzordeak aipaturiko dokumentuak aztertuko ditu eta herri-erakunde sinatzaileei proposatuko die hurrengo ekitaldian Labayru Fundazioari izendatuko zaion ekarpen ekonomikoa, haiek aurreikusi eta, balegokio, aurrekontu-izapidetza aurrera eramateko.

5.3. Aipatutako aurrekontuak zehatz-mehatz bereiztu beharko ditu Labayru Fundazioaren funtzionamendu arrunterako zatia zein programak finantzatzeko.

5.4. Herri-erakunde sinatzaileek, Jarraipen Batzordeak baloratu ondoren eta aurrekontuek ahalbidetzen dieten heinean, Labayru Fundazioari egin beharreko ekarpenak handitu ditzakete, bakarka nahiz elkarrekin, Labayru Fundazioak egin nahi dituen eta bere aurrekontu arruntean jaso gabe dauden programa ez-ohikoak nahiz hitzarmen hau indarrean den bitartean proposa daitekeen bestelako edozein jarduera finantzatzeko aldera.

Quinta.- Procedimiento

5.1. Cada ejercicio, y dentro del plazo que le determine la Comisión de Seguimiento, la Fundación Labayru deberá presentar ante esta el plan de actuación de los programas que vaya a realizar en el ejercicio siguiente junto con los presupuestos provisionales (ordinario y por programas).

5.2. La Comisión de Seguimiento, estudiará dicha documentación y propondrá a las Administraciones firmantes, para su previsión y, en su caso, tramitación presupuestaria, la aportación económica que para el ejercicio siguiente entienda procedente.

5.3. Dicho presupuesto distinguirá con claridad suficiente la parte que del mismo habrá de dedicarse a la financiación ordinaria de la Fundación, de aquella otra que se deberá dedicar a financiar los programas.

5.4. Las administraciones públicas suscribientes, previa valoración por la Comisión de Seguimiento y en función de sus disponibilidades presupuestarias, podrán aumentar de forma individual o conjunta las aportaciones a realizar a la Fundación Labayru con objeto de financiar aquellos programas de naturaleza extraordinaria que pretenda desarrollar la Fundación Labayru y que no estén recogidos en su presupuesto ordinario.

Nolanahi ere, horrek ez dio inolako konpromisorik sortuko ekarpena ez handitzea erabakitzen duen herri-aginteari.

5.5. Urtean urteko dirulaguntzen ordainketa, era honetan bideratuko da:

A) Eusko Jaurlaritzaz:

Eusko Jaurlaritzak dagokion dirulaguntza ordainduko du, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan jasotako dirulaguntza urtero bideratzen duen Aginduan ezarritakoaren arabera.

B) Bizkaiko Foru Aldundia:

Bizkaiko Foru Aldundiak Aldundiaren beraren Aurrekontuetan kontsignatutako dirulaguntza bideratzeko sinatzen den hitzarmenean ezarritakoaren arabera ordainduko du dirulaguntza.

Seigarrena.- Jarraipen Batzordea

6.1. Hitzarmen hau izenpetu eta beranduenik, handik hilabeteko epean Jarraipen Batzordea eratuko da bertan aurreikusten diren jarduerak aztertu eta garatzeko, bai eta ordaindutako gastuen segimendua egiteko ere; horrela, ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko. Horretarako, Jarraipen Batzordeak hitzarmena aplikatzeko irizpideak ezarriko ditu eta sor litezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak konponduko.

En cualquier caso, este hecho no comportará ningún compromiso para la administración pública que decida no aumentar su aportación.

5.5. Cada año el pago de las subvenciones se realizará de la siguiente manera:

A) Gobierno Vasco:

El Gobierno Vasco abonará la subvención correspondiente, de acuerdo con lo establecido en la Orden que instrumente anualmente la subvención consignada en los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

B) La Diputación Foral de Bizkaia:

La Diputación Foral de Bizkaia realizará el abono de la subvención según se establezca en el convenio que instrumente anualmente la subvención consignada en los Presupuestos de la Diputación Foral de Bizkaia.

Sexta.- La Comisión de Seguimiento

6.1. Firmado el presente convenio, se constituirá en el plazo de un mes, una Comisión de Seguimiento encargada del análisis y del desarrollo de las actividades previstas en el mismo, así como del seguimiento de los gastos sufragados, con el fin de garantizar el cumplimiento de los objetivos marcados. A tal efecto, la Comisión de Seguimiento establecerá los criterios de aplicación del convenio y resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que pudieran plantearse.

6.2. Ondoko kideez osatuko da Batzordea:

- a) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzordeburuari dagokion egitekoa beteko duena.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara zuzendari nagusia.
- c) Labayru Fundazioaren zuzendaria edo berak izendaturiko ordezkaria.
- d) Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria, batzordeko idazkariari dagokion egitekoa beteko duena.

6.3. Batzordeko bileretara Labayru Fundazioaren beste hiru ordezkari joan ahal izango dira, gehienez. Berauek hitza izango dute, baina ez botorik.

6.4. Batzordeak, hitzarmen honen betearazpena koordinatzeko eta kontrolatzeko esleitzen zaizkion eginkizun orokorrez gain, honako eginkizun espezifiko hauek izango ditu:

- a) Labayru Fundazioarekin hitzartutako lanak zuzen eta garaiz bideratzen ari diren baloratzea eta zaintzea.
- b) Herri-aginteek horren beharra ikusten duten kasuetan, Labayru Fundazioari esleitutako corpus plangintzaren arloan dauden premiei eta/edo lehentasunei buruzko iritzia ematea.

6.2. La Comisión estará formada por los siguientes miembros:

- a) El/La viceconsejero/a de Política Lingüística del Gobierno Vasco, que desempeñará las funciones de presidente de la Comisión.
- b) El/La Director/a General de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia.
- c) El/La Director/a de la Fundación Labayru, o un representante nombrado por él/ella mismo/a.
- d) El/La Director/a de Promoción del Euskera del Gobierno Vasco, que desempeñará además las funciones de secretaria de la Comisión.

6.3. Podrán asistir a las reuniones de la Comisión, y participar con voz pero sin voto, hasta tres representantes más de la Fundación Labayru.

6.4. La Comisión, además de las funciones generales de coordinación y control de la ejecución de este convenio que le son asignadas, tendrá las específicas siguientes:

- a) Valorar el desarrollo de los trabajos convenidos con la Fundación Labayru y velar por el cumplimiento de los plazos establecidos.
- b) En caso de que los poderes públicos lo consideren necesario, opinar sobre las necesidades y/o prioridades en materia de planificación del corpus atribuidas a la Fundación Labayru.

c) Labayru Fundazioaren programen (herri-aginteez diruz lagundutako) emaitzak argitaratzeari dagokion guztia proposatzea.

d) Labayru Fundazioari urtero egingo zaion ekarpen ekonomikoa proposatzea, bai eta herri-aginte bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa proposatzea ere.

Bileren deialdiak zein aipatutako batzordearen funtzionamendu-erregimenak 2015eko urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen Atariko tituluaren II. kapituluaren 3. atalaren lehen azpiatalean xedatzen denari jarraituko dio.

Izan ere, aurreikusten ez den guztiari dagokionez, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak adierazitakoa beteko da.

6.5. Batzordea eratzeko quorumak haren kideen gehiengoa behar izango du.

6.6. Batzordearen erabakiak botoen gehiengoaren arabera hartuko dira. Batzordeburuaren botoa erabakigarria izango da.

6.7. Urtean gutxienez bilera bat egingo da, azken lauhilekoaren barruan. Bilera horretan, Labayru Fundazioak honako hauek aurkeztuko ditu Jarraipen Batzordean onesteko: urteko egitasmoen betetze-maila eta aurreko urteko kontuen auditoria txostena, batetik, eta hurrengo urterako aurrekontua eta egitasmoen proposamena, bestetik. Beren aldetik, herri-

c) Proponer cuanto se refiera a la publicación de los resultados de los programas de la Fundación Labayru que hayan sido subvencionados por los poderes públicos.

d) Proponer la aportación económica anual a conceder a la Fundación Labayru, así como el importe de la subvención correspondiente a cada institución.

El régimen de convocatorias de reuniones y de funcionamiento de la citada comisión se ajustará a lo establecido en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público (título preliminar, capítulo III, sección 3ª, subsección 1ª).

Con respecto a todo lo no previsto en el presente convenio, se estará a lo establecido en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

6.5. El quórum para la válida constitución de la Comisión será el de la mayoría de sus componentes.

6.6. La Comisión adoptará sus acuerdos, por mayoría. El voto del presidente será de calidad.

6.7. La Comisión se reunirá, como mínimo, una vez al año, dentro del último cuatrimestre. En dicha reunión, la Fundación Labayru presentará ante la Comisión de Seguimiento para su aprobación, por un lado, el índice de cumplimiento del programa anual y el informe de la auditoría de las cuentas del ejercicio anterior, y por otra, el plan de actuación y el presupuesto para el

agintek aurrekontuen lege eta foru-arau egitasmoetan Labayru Fundazioarentzat aurreikusitako ekarpen ekonomikoa proposatuko dute.

Horiez gain, Batzordeko bi kidek gutxienez hala eskaturik, Jarraipen Batzordeko buruak hilabeteko epean gehienez, ez-ohiko bilerarako deia egin ahal izango du.

6.8.- Jarraipen Batzordearen buru eta idazkari karguen ordezkotza-sistema finkatzeko, kontuan izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 19. artikulua ezartzen duena.

Buruaren kargua hutsik badago, edo burua absente edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago, buruordeak ordezkatu du burua; eta buruorderik ez bada, berriz, kide anitzeko organoa hierarkia-maila, antzinasun eta adinik handiena duen kideak ordezkatu du, beti ere, hurrenkera horretan: hierarkia-maila, antzinasun eta adin handiena.

Zazpigarrena.- Hitzarmena bukatzeko edo suntsiarazteko arrazoiak

Hitzarmen hau bukatu edo suntsiarazi ahal izango da, honako gertaera hauetariko bat suertatzen denean:

a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.

siguiente año. Por su parte, las administraciones públicas propondrán la aportación económica prevista para la Fundación Labayru en el Proyecto de Ley y Proyecto de Norma Foral de los Presupuestos de las respectivas instituciones.

Además de las señaladas, el/la presidente/a de la Comisión a petición como mínimo de dos miembros, podrá convocar en el plazo máximo de un mes, una reunión extraordinaria.

6.8.- Para establecer el sistema de delegación de los cargos de presidente y secretario de la Comisión, se tendrá en cuenta lo establecido en el artículo 19 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal, el presidente será sustituido por el vicepresidente o, en su defecto, por el miembro del órgano colegiado de mayor jerarquía, antigüedad y edad, por este orden: mayor jerarquía, antigüedad y edad.

Séptima.- Causas de finalización o resolución del convenio

El presente convenio podrá finalizar o resolverse cuando se produzca alguna de las siguientes circunstancias:

a) La terminación de la vigencia del convenio sin que se acuerde su prórroga.

b) Sinatzaile diren alderdi guztien adostasuna.

c) Labayru Fundazioak bere eginbeharretan hutsegite larria izatea. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak tramitaturiko espedientean halaxe adierazitakoan hartuko da hutsegite hori aintzakotzat.

d) Alderdietako edozeinek salatzea. Gainerako alderdiei salaketa horren berri eman beharko zaie jakinarazpena egin baino 2 hilabete lehenago.

e) Beste edozein, hitzarmenaren ondoriozkoa izanik, baldin eta indarrean dagoen legerian jasota badago.

b) Mutuo acuerdo entre todas las partes suscribientes.

c) Incumplimiento grave de los compromisos contraídos por la Fundación Labayru, cuando así quede declarado mediante expediente tramitado a tal efecto por la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco.

d) Denuncia de cualquiera de las partes, la cual deberá ser comunicada al resto de los suscribientes con 2 meses de antelación a la fecha de efectos prevista.

e) Cualesquiera otras que derivadas de la naturaleza del convenio sean recogidas por la legislación vigente.

Zortzigarrena.- Hitzarmenaren izaera

Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta Jarraipen Batzordeari dagokio haren edukiak interpretatzea. Interpretazio horretatik eratorritako arazoak dagozkien administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira. Beraz, jurisdikzio horren egitekoa izango da haiek aztertzea.

Bederatzigarrena.- Hitzarmenaren kudeaketa administratiboaren ardura

Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendaritza arduratuko da hitzarmen hau sinatzen duten erakundeekiko kudeaketaz eta koordinazioaz.

Octava.- Naturaleza del convenio

El presente convenio tiene naturaleza administrativa, correspondiendo a la Comisión de Seguimiento la interpretación de su contenido. Las cuestiones derivadas de esta interpretación serán, en última instancia, de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Novena.- Responsabilidad de la gestión administrativa del convenio

La Dirección de Promoción del Euskera del Gobierno Vasco será la responsable de la gestión y coordinación con las entidades firmantes de este convenio.

Hamargarrena.- Azkena

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, partaideek honako dokumentu honen hiru ale izenpetzen dituzte orrialde guztietan.

Bilbon, 2021eko _____ren _____an.

MIREN DOBARAN URRUTIA

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea.
Viceconsejera de Política Lingüística del Gobierno Vasco.

IGONE ETXEBARRIA ZAMALLOA

Labayru Fundazioaren zuzendaria.
Directora de la Fundación Labayru.

Décima.- Final

Para la debida constancia de lo convenido y con la expresa declaración de su cumplimiento, por las partes se firma y rubrica en todas sus páginas el presente documento por triplicado.

En Bilbao, a _____ de _____ de 2021.

LOREA BILBAO IBARRA

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua.
Diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia.

I ERANSKINA

AURREKONTU LIKIDATUA 202_- ABENDUA-31						
DIRU-SARRERAK 202_ LABAYRU FUNDAZIOA						
Partidak	Onartutakoa		Izandakoa		Diferentzia	
	0	%	0	%	0	%
EUSKERAZKO IKASTAROAK	0	%	0	%	0	%
Labayruko ikasturte eta ikastaroak Lehiaketa, hitzarmen eta kontratuak		----		----	0	----
EUSKERAZKO EGITASMOAK	0	%	0	%	0	%
Eusko Jaurlaritza: Hitzarmena EJ+BFA					0	
Bizkaiko Foru Aldundia: Hitzarmena EJ+BFA		----		----	0	----
BFA-Bizkaieraren Ataria					0	
BESTELAKO LEHIAKETA ETA KONTRATUAK	0	%		%	0	%
ITZULPENAK	0	%		%	0	%
ERABILERA PLANAK	0	%		%	0	%
ARGITALPENAK	0	%		%	0	%
ETNOGRAFIA ARLOKO HITZARMENAK	0	%		%	0	%
Bizkaiko Foru Aldundia	0				0	
Eusko Jaurlaritza	0	----		----	0	----
HERRI ONDARE ARLOKO KONTRATUAK	0	%		%	0	%
KUOTA, DOHAINTZA ETA FINANTZA SARRERAK	0	%		%	0	%
BESTELAKO DIRU-SARRERAK	0	%		%	0	%
GUZTIRA 202_	0	%	0	%	0	%

GASTUAK 202_						
Partidak	Onartutakoa		Izandakoa		Diferentzia	
	0	%	0	%	0	%
GIZABANAKO GASTUAK	0	%	0	%	0	%
Ordainsariak					0	
Gizarte Segurantza		----		----	0	----
Profesionalak eta autonomoak					0	
Bidai gastuak					0	
BESTELAKO GASTU ETA ZERBITZUAK		%		%	0	%
ARGITAKPENAK		%		%	0	%
IBILGETUAREN AMORTIZ. ETA IZAKINEN ALDAK.		%		%	0	%
GUZTIRA 202_	0	%	0	%	0	%